



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

HAUR ETA GAZTETXOEI ZUZENDUTAKO AISIALDI EKINTZAK 2020
COVID-19a dela eta irakurri, sinatu eta entregatu beharreko dokumentua

EKINTZETARA ETORTZEKO JARRAIBIDEAK eta HIGIENE ETA PREBENTZIO NEURRIAK:

- Programatutako ekintza baino 15 minutu lehenago bertaratu beharko dira haur eta gaztetxoak ekintza bakoitzerako zehaztutako lekura.
- Lehen Hezkuntzako 2. mailara arteko haurrak beren ardura duen norbaitekin etorriko dira eta hala egongo dira ekintzan zehar ere. Lehen Hezkuntzako 3. Mailakoak eta hortik gorakoak bakarrik etorri ahal izango dira, betiere jarraibide hauek jarraituz.
- 6 urtetik gorakoak musukoa jantzita etorriko dira, ekintzen sarrera eta irteerak egiteko. Ondoren, ekintzan zehar, distantzia bermatuta dagoenean kenduko da musukoa. Udalak banatuko die musuko bana izena eman duten haur-gaztetxo guztiei.
- Ekintzara etorri aurretik etxean tenperatura hartzea eskatzen da, eta 37^otik gora izanez gero ez da ekintzara etorri behar. Ezta Covid-19aren sintomatologia (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.) badu, edota gaitzak kutsatutako norbaitekin kontaktuan egon delako segimenduan badago ere.
- Covid-19a dela eta adinagatik, haurdun egoteagatik edo bestelako afekzio medikoak izateagatik kalteberak diren pertsonekin biziz gero, parte hartu ahal izango da ekintzetan, nahiz eta gogoan izan behar den horrek dakarren arriskua norbere erantzukizun pean geratzen dela.
- Ekintzen sarrera-irteeran eta ekintzan zehar bideratzaile eta ekintzaren gidariek emandako jarraibideei kasu egingo zaie uneoro.
- Gaixotasun arrazoiak edo bestelakoak medio ekintzaren batera joan behar ez duenak ahal dela aurrez abisua emango du Kultur Etxean.
- Ekintza hasita egonik ere, jarraibideak ez direla betetzen ikusiz gero antolatzaileek jakinarazpena egingo dute. Hala behar izango balitz ekitaldia momentu batez eten egingo litzateke egoera zuzendu arte. Eta beste erremediorik ez balego ekitaldia bertan behera utziko da.

Sinadura



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

BAIMEN INFORMATUA

Nik, _____-ren guraso/legezko tutorea naizen honek, _____ izen-abizenak eta _____NA zenbakia ditudanak, nire erantzukizun pean adierazten dut eskatzen dudala nire seme edota alabak Zaldibiako Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzea. Horretarako, irakurri dut Zaldibiako Udalak emandako informazioa, eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut, nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalekin dudan konpromisoa adierazten dut, ekintzetarako jarraibideak errespetatzeko konpromisoa adierazten dut eta Covid-19arekin kutsatzeko aukeraren erantzukizun osoa nire gain hartzen dut.

Era berean, baimena ematen dut 2020ko aisialdiko ekintza hauetan ateratzen diren argazkietan edo egin daitezkeen grabazioak, nire seme-alabak agertzeko, eta argazki horiek, edo grabazio horiek, "zaldibia.eus" eta "zaldibia.org" webguneetan edo bestelako udal argitalpenetan publikatzeko.

DATUEN BABESERAKO LEGE ESKAKIZUNA

Izen emate honetan jasotako erabiltzaileen datu pertsonalak, kudeaketa edo informazioa helarazteko bakarrik erabiliko ditu Zaldibiako Udalak.

Zaldibiko Udalak; argitalpenak edo beste era bateko gutunak eta e-mailak edo mezu elektronikoak bidaltzeko erakunde, zerbitzu eta jarduera publikoei buruzko informazioa helarazteko erabili ditzake datu hauek . Informazio guztia: zaldibia.eus/eu/orria/datuen-babesa

Sinadura